

## BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroen harremanak ondo finkatu eta diseinatzea, ezinbesteko lantzat jotzen dugu gure enpresan. Izan ere, haiei esker gure proiektuak jarraipena izango du. Harreman horiek zaintzea, beraz, gure ardura nagusienetako bat izango da.

Harreman hauen oinarrian ondorengo printzipioak defendatuko ditugu:

- Fideltasuna.
- Konfiantza.
- Zintzotasuna.
- Transparentzia.
- Zerbitzu pertsonalizatuak.
- Harreman zuzena.

Bezeroekin harremanetan jartzeko ezinbestekoa den saila daukagu gure webgunean. Harreman automatizatua izango da hori, lehen kontaktua zehazteko erabiliko dena. Halere, ondoren, zerbitzuak kontratatzeke eta bezeroen behar eta nahiak ezagutzeko harreman pertsonalizatura joko, hau da, kontaktu zuzenera. Gainera, gure zentroko harreragileek entzungo dituzte sortzen diren arazoak edo zalantza guztiak, eskaeraren araberrako erantzunak emanaz.

E-maila zein telefonoa izango dira harreman hauek finkatzeko bide nagusienak. Dena den, behar izanez gero, gure bezeroak izango direnekin elkarrizketa pertsonalak edo Skype bidezko elkarrizketa birtualak izateko aukera ere eskaintzen dugu.

Bezeroei, gabonetan eta urteurrenetan, zorionezko postal bat bidaliko zaie. Gainera, bezeroek enpresari lotuta egon diren urteen arabera, deskontu bat egingo zaie. Adibidez, gure enpresarekin urte batez egonez gero %10-eko deskontua egingo zaie kontratatutako zerbitzuetan.